

## Negozioa

GEUK DARAMAGU natura muturrera, akaberara. Nekazaritza industrializatua dugu, aspaldi, eta irtenbiderik gabeko otso zulo batera daramagu. Eta garamatza. Sistema eta teknika aurrerapenen izenean gero eta bide makurragoetan barrena goaz. Bagoazela! Nora orde? Negozioaren izenean milaka urtetan ondutako aberastasuna suntsitzera, geure buruaz besteren bat egitera. Negozioa da, bai orain nekazaritza. Nekazari bizi nahi duenak beharko du, berriz ere, psikologo edo zer edo zer.

Etekinaren usainean landare aldaera edo klase berriak sortzea eragiten da. Negozioaren helburuetarako baldintzetara ondoen egokitzen diren barietateak hautatzerakoan landare horien beste ezaugarriak bide bazterrean gelditzen dira. Lehengoan nioena, adibidez. Kiwi gozo-gozo baten atzetik 23 urtez ikertu, eta lortu, baina gaitzei aurre egiteko gaitasuna galdu du bidean. Hura ekoizteko inbertsioak egin dituzten fruituzainak hankaz gora. Hankaz gora buruz behera baitoaz, bere burua botata...



*Actinidia arguta*, koktel kiwia.

Psikologoetara iritsi behar izan da kiwizalea. Ikusi nahi dituenarentzat alarmak argiak dira. Nekazaritzaren negozioaren adibide asko dago. Behi esnea sortzen duten ukuilu industrialak, adibidez, gero eta gehiago bertako jatenak uzten eta kanpotik ekartzen dituztenak.

Jakina da haziekin gertatzen ari dena. Transgeniko kaltegarriez gain, enpresa handiek patenteen bidez hazien erabilera bereganatzen ari dira. Politikariak enpresa horien manjateretan bazkatzen direnez, laster hazi naturalik egiteko eskubiderik ere ez dugu izango...

Hazirik gabeko fruituak ere gero eta maizago ikusten dira. Udareak adibidez. Lehendik bananek, pikoeak eta abarrek haziak hazteari utzi diote, alferrikako lana. Geuk ugaltzen ditugu txertoz edo aldaxkaz klonatuz eta ez dute ugalketan pentsatu ere egin beharrik. Laster fruiturik ere ez dute emango...


Kiwi horiaren gaitzak bezala, jo eta denak akabatzeko joera duen arazoren bat sortzen ez den artean ezikusiarrena egiten dugu, baina orduan ito beharrean jartzen gara. Alarma guztiak pizten ditugu. Bitarte horretan ikaragarriak eta bi egin dira, eta guri bost. Alarma horrek edozer astakeria ametitzeko giroa sortzen du: sagarrondo guztiak galtzerainoko gaitasuna omen zuen sugorrina tratatzeko antibiotikoak erabili ziren, lehen aldiz.

Kiwiekin amaitzeko, 90 espezie baino gehiago ezagutzen dira, baina *Actinidia arguta*, koktel kiwia da azken puntakoa. Modan jarri dugun azkena. Horrek ere izango du ipurdian zuloa. ■



# 120.000

**Izugarriak** dira baobabak, *Adansonia sp.* Itxura izugarriaz gain berez ere halaxe dira. Eitea eta izatea bereziak. Ura orain suilaka eta puska batean ttanttarik ere ez izaten den tokian bizitzera jarriak daude. Enborrean 120.000 litro ur baino gehiago bildu eta jasotzeko gai dira. Zerbaitegatik deitzen zaie botila-zuhaitz. ■



JIALIANG GAO-CC BY SA



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.com](mailto:landareak@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.



- Lorezaintza proiektuak
- Mantentze zerbitzua
- Landare iraunkorren erabilpena eta salmenta:

· Ezagutu eta aukera ezazu Urbina Garden-en.  
Legutio ☎ 945 40 34 23

☎ 609 42 45 47 · [lorelan@euskalnet.net](mailto:lorelan@euskalnet.net)

